

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4987

EBAZPENA, 2020ko urriaren 5ekoa, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariarena, zeinaren bitartez argitara ematen baita Donostiako «Musikene» Goi Mailako Musika Ikastegi Baimenduaren Musika Arloko Bitartekaritza, Kudeaketa eta Zabalkundeko Irakaskuntza Artistikoen Masterraren titulua lortzeko ikasketa-plana.

Urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuak 7.1 artikuluan ezartzen duenez, goi-mailako arte-irakaskuntzetako zentroek Arte Irakaskuntzen Goi Mailako Titulua eta Masterra lortzeko ikasketak eskaini ahal izango dituzte (1614/2009 Errege Dekretuaren bidez, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak (LOE) eta Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak (LOMCE) arautzen dituzten goi-mailako arte-irakaskuntzen antolamendua ezarri zen; gerora, errege-dekretu hori urtarrilaren 23ko 21/2015 Errege Dekretuak aldatu zuen).

Era berean, errege-dekretu horren 13.1 artikuluan, goi-mailako arte-irakaskuntzetako masterreko tituluen ikasketa-planak homologatzeko jarraitu beharreko prozedura ezartzen da.

Izapide guztiak bete ondoren, Donostiako «Musikene» Goi Mailako Musika Ikastegi Pribatu Baimenduaren Musika Arloko Bitartekaritza, Kudeaketa eta Zabalkundeko Irakaskuntza Artistikoen Masterraren titulua lortzeko ikasketa-plana Unibertsitatez Kanpoko Ikastetxeen Estatuko Erregistroan inskribatu da 20012638 kodearekin, eta Hezkuntza eta Lanbide Heziketako ministroaren ekainaren 5eko EFP/666/2019 Aginduaren bidez homologatu da (abenduaren 27ko EFP/1422/2018 Aginduaren babesean, eskuordetza bidez, María de la Consolación Vélaz de Medrano Ureta Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak emana; 2019ko ekainaren 19ko BOE, 146. zk.).

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 79/2017 Dekretuak 15. artikuluan zehazten du araubide bereziko irakaskuntzen ezarpenaren eta garapenaren programazioa eta diseinua Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzaren eginkizun eta eskumenetako bat dela, Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiaren irakaskuntzak barne.

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Donostiako «Musikene» Goi Mailako Musika Ikastegi Baimenduan ematen den Musika Arloko Bitartekaritza, Kudeaketa eta Zabalkundeko Irakaskuntza Artistikoen Masterraren ikasketa-plana, ebazpen honen eranskinean agertzen den moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 5a.

Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria,
EUGENIO JIMENEZ IBAÑEZ.

ERANSKINA

MUSIKENE EUSKAL HERRIKO GOI-MAILAKO MUSIKA-IKASTEGIAREN MUSIKA-ARLOKO
BITARTEKARITZA, KUDEAKETA ETA ZABALKUNDEKO IRAKASKUNTZA ARTISTIKOEN
MASTER-TITULUA LORTZEKO IKASKETA-PLANA

Tituluari dagokion jakintza-adarra: Arteak eta Giza Zientziak.

Masterraren egitura:

Moduluak	ECTS kredituak	Jakintzagaiak
Musika-bitartekaritza	24	4
Proiektuak sortzea	34	3
Musika-arloko kudeaketa eta zabalkundea	17	4
Hautazkoak	12	2
Praktikak	16	2
Master amaierako lana	17	2
Guztira	120	17

Ikasketa-plana:

Moduluak eta irakasgaiak	Iraupena/lzaera	ECTS
Musika-bitartekaritzako modulua		24
Musika-bitartekaritzaren teoria eta metodologia	Lehen lauhilekoa / Nahitaezkoa	7
Musikaren soziologia: entzuleak eta testuinguruak	Urtekoa / Lehenengo maila / Nahitaezkoa	7
Berrikuntza pedagogikoa: baliabideak eta materialak diseinatzea I	Bigarren lauhilekoa / Nahitaezkoa	7
Berrikuntza pedagogikoa: baliabideak eta materialak diseinatzea II	Hirugarren lauhilekoa / Nahitaezkoa	3
Proiektuak sortzeko modulua		34
Prestakuntza eszenikoa	Urtekoa / Bigarren maila / Nahitaezkoa	10
Proiektuen laborategia I	Urtekoa / Lehenengo maila / Nahitaezkoa	12
Proiektuen laborategia II	Urtekoa / Bigarren maila / Nahitaezkoa	12
Musika-arloko kudeaketaren eta zabalkundearen modulua		17
Komunikazioa: kudeaketa, zabalkundea, berrikuntza	Laugarren lauhilekoa / Nahitaezkoa	6
Musika-arloko kudeaketa eta produkzioa I	Bigarren lauhilekoa / Nahitaezkoa	3
Musika-arloko kudeaketa eta produkzioa II	Hirugarren lauhilekoa / Nahitaezkoa	3
Lanbide-garapena	Urtekoa / Lehenengo maila / Nahitaezkoa	5
Hautazko modulua (maila bakoitzeko bat)		12
Grabazio- eta postproduktzio-teknikak	Lehen edo hirugarren lauhilekoa / Hautazkoa	6
Artea eta gizarte	Lehen edo hirugarren lauhilekoa / Hautazkoa	6
Kulturen arteko elkarriketa eta entzule berriak	Lehen edo hirugarren lauhilekoa / Hautazkoa	6
XX. eta XXI. mendeetako pentsamendu sortzailea eta estetika	Lehen edo hirugarren lauhilekoa / Hautazkoa	6
Praktiketako modulua		16
Praktikak I	Bigarren lauhilekoa / Nahitaezkoa	8
Praktikak II	Hirugarren lauhilekoa / Nahitaezkoa	8
Master amaierako lanaren modulua		17
Ikerketaren metodologia	Lehen lauhilekoa / Nahitaezkoa	5
Master amaierako lana	Laugarren lauhilekoa / Nahitaezkoa	12
Masterreko kredituak, guztira		120